


BASQUETOUR

TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO

ATZERRIKO BISITARIAK EUSKADIN – FRONTUR 2011

2012ko uztaila



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

Société Public du
Public corporation of

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

CARACTERÍSTICAS

Lanaren zuzendaria:
LiNVESTiC, S.L. k burututako lana, César Legarra Riverok zuzenduta.

Erredaktore-taldea:

- César Legarra Rivero.
Zuzendari Orokorra
- Yolanda Manzana Oreja.
Datu-tratamenduaren arduraduna
- Joxe Mari Urretabizkaia Sacristán.
Kontsultorea

Sortze-data:
2012ko uztaila

Bertsioa:

Iruzkinak:

Atzerriko bisitariak Euskadin

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak, BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentziaren bidez, Mugako Mugimendu Turistikoen (FRONTUR) eta Gastu Turistikoaren Inkestaren (EGATUR) etengabeko estatistikaren berriazko ustiapenak emandako emaitzak aurkeztu ditu beste urte batez. Datuak Euskal Autonomia Erkidegokoak dira, eta bi inkesta horiek, Turismo Azterketen Erakundeak (IET) egin ditu, Euskadin dagoen errealtate turistikoa hobeto ulertzeko.

Txosten honetan dagoen informazioa 2011. urtekoa da. Horrela, 1998. urtean, Euskadira etortzen diren atzerriko turisten eskaeraren portaera definitzen duten egiturazko ezaugarriei eta turisten joerei buruzko informazio zehatza izateko egin zuten lehen txostenari gehituko zaio.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Turismoaren Euskal Agentziak eskerrak eman nahi dizkio Turismo Azterketen Institutuari, turismoaren arloan, testuinguru estatistiko nazionalaren estatistikarik sendoenetako baten datuak eskuratzeko emandako laguntzarengatik.

FRONTUR inkestaren fitxa teknikoa:

FRONTUR erakundearen estatistika Espainiara, hilabetez hilabete, mugetatik heltzen diren turisten kopurua neurtzeko oinarritzko iturri ofiziala da.

Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepedez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.

EGATUR inkestaren fitxa teknikoa:

Gastu Turistikoaren Inkesta (EGATUR), muga, etengabe eta hilabetez hilabete, errepede, aireportu eta itsas portuetako muga-pasabideetan egindako lana da. Inkesta, egoiliarak ez diren bisitarien Espainiatik irtetean egindako elkarrizketa pertsonalaren bidez egiten da.

Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepedez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.

AURKIBIDE

0.- HITZ GLOSARIOA.....	8
1.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN TIPOLOGIA.....	9
1.1.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	10
1.2.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011).....	10
1.3.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	11
1.4.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	11
2.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK.....	12
2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	12
2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	12
2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2008 – 2011).....	13
2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea.....	14
2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	14
2.6.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	15
2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea.....	15
2.8.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	16
2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011).....	16
2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	17
2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea.....	18
2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	18
2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011).....	19
2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	19
2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea.....	20
2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. 2011 urtea.....	20
2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa. 2011 urtea.....	21
2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	21
2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	22

2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011).....	22
2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta sexuaren arabera. 2011 urtea.....	23
2.22.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)	23
2.23.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)	24
2.24.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta sexuaren arabera. 2011 urtea	24
3.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK	25
3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	25
3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	25
3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2008 – 2011)	25
3.4.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	27
3.5.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)	27
3.6.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011).....	27
3.7.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea	28
4.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN GASTUAK	29
4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	29
4.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa. 2011 urtea	29
4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	30
4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien batez besteko gastua, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	30
4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	31
4.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2011 urtea.....	31
4.7.- Euskadira etortzen diren bisitarien eguneko batezbesteko gastua (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2011 urtea	32
4.8.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2011 urtea	32
5.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK	33
5.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	33
5.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa. 2011 urtea	33
5.3.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	34
5.4.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	34
5.5.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	34

5.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa,bizileku nagusien arabera. 2011 urtea.....	35
5.7.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	36
5.8.- Euskadira etortzen diren turisten pertsonako batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	36
5.9.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	37
5.10.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bisitaren arrazoiaren arabera. 2011 urtea	38
5.11.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	38
5.12.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	39
5.13.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	39
5.14.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, erabilitako ostatuaren arabera. 2011 urtea	40
5.15.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	40
5.16.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	41
5.17.-Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	41
5.18.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2011 urtea	42
5.19.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	42
5.20.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	43
5.21.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	43
5.22.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bidaiaren antolaketaren arabera. 2011 urtea	44
5.23.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	44
5.24.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	45
6.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK.....	46
6.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	46
6.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoaren banaketa. 2011 urtea	46
6.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	46
6.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. 2011 urtea	47
6.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	47
6.6.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011).....	47
6.7.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. 2011 urtea	48

6.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa pertsonako, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)	48
--	----

TAULEN ZERRENDA

T1.- Euskadira etortzen diren bisitariak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2008 – 2011 urteak	13
T2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2008 – 2011 urteak	26

0. HITZ GLOSARIOA

OMTeak (Nazio Batuetako turismoan espezializatutako agentzia) "Turismoaren Estatistikarako Gomendio Internazionalak (RIET)" dokumentuan, hurrengo definizioak azaltzen ditu:

Turismoa gertaera sozial, kultural eta ekonomiko bat da, pertsonak bere ohiko bizilekuetatik arrazoi pertsonal edo profesionalengatik, eta urtebete baino gutxiagoko denboraldi kontsekutibo batean, egiten dituzten mugimenduekin erlazionatua dago.

Pertsona baten **ohiko ingurunea**, turismoan kontzeptu erabakigarria, pertsona batek bere eguneroko ohiko aktibitateak egiten dituen inguru geografikoa (ez du aldamenekoa izan beharrik) bezala ezagutzen dugu.

Bidaiaria bi herrialde desberdin edo gehiagoren artean mugitzen den pertsona, edo bere herrialdearen barruan, bere ohiko bizilekutik, bi leku desberdin edo gehiagora mugitzen den pertsona bat da.

Bisitaria: bere ohiko ingurunetik kanpo, norako nagusi batera bidaiatzen duen pertsona da, urtebete baino denbora gutxiagorako, edozein dela eta bere helburu nagusia (aisia, salerosketak edo beste edozein arrazoi pertsonal), herrialde edo beste leku honetan kokatutako entitate batek kontratatzea bada izan ezik.

Turista: bisitatutako herrialdean ostatu kolektibo edo pribatu batean gutxienez gau bat igarotzen duen pertsona da.

Txangozalea: bisitatutako herrialdean ostatu kolektibo edo pribatu batean gaurik igarotzen ez duen pertsona edo egun bakarreko bisitaria da

Bidai turistikoa baten norako nagusia bidaiaria egiteko erabakigarria den bisitatzen den lekua da.

Ohiko bizileku edo herrialdea, pertsona batek ohikoen duen bizilekuaren kokapen geografikoa da. Pertsona bat urtebe baino gehiagoz leku konkretu batean bizi bada (edo bizitzea pentsatzen badu), eta bertan bere interes ekonomikoak baditu (adibidez, bere denbora bertan pasatzen badu gehien bat), pertsona hori leku edo herrialde hontako biztanlea dela esan daiteke.

Bidai turistikoa batean ez balitz **arrazoi nagusia** existituko, bidaiaria ez litzateke inoiz burutuko.

Pakete turistikoa modu bakarrean komertzializatzen den produktua da. Turismoaren arloko bi zerbitzu edo gehiagoz osatua dago, adibidez, ostatua, mantenua eta garraioa, eta denagatik prezio bat ordaintzen da. Paketearen barruan kontsumitzaileak ezinezkoa du ematen zaizkion zerbitzu bakoitzari bere bakarkako prezio ezartzea.

Gastu turistikoa: Kontsumorako ondare eta zerbitzuengatik, eta objektu baliotsuengatik, nahiz ta oparitzeko edo kontsumo pertsonalerako izan, bidaiaria zehar eta bidaiarako, ordaindutako diruaren gehiketa da. **Gastu turistikoa** bi gastu mota barneratzen ditu, bisitariak Euskadira egindako bidaiaria zehar egindako gastuak, eta bidaiaria hasi baino lehen egindakoak, hala nola, egazkin txartela eta pakete turistikoa.

Gastu turistikoa konposaketa:



- **Pakete turistikoa** egindako gastua.
- **Ostatuan egindako gastua**.
- **Garraioen gastua**: joan eta etorriko garraioa eta norakoan garraioan egindako gastuak barneratzen ditu.
- **Jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua**.
- **Elikagaietan egindako gastua**.
- **Txango eta bestelakoetan egindako gastua**: txangoetan egindako gastuak, opariak eta bestelako gastuak, inbertsioak ez diren bitartean.

1. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN TIPOLOGIA

Euskal Herria bisitatu duten, atzerrian bizi diren bisitariak, hazkunde jarraitu bat jasan dute ikerketa honen hasieratik 1998an. 2006. urteak lehenengo postua mantentzen zuen, Euskadira bisitarien sarrera gehien zituen urtea bezala, 9.290.446 bidaiarirekin, baina aurten, 2011ean, record historiko bat lortzen da 10.338.998 bisitarirekin, azken 13 urteetako urterik hoberena %11,3 gehiagorekin.

Txangozaleek bisitari multzoaren joera berdina aurkezten dute, hauen artean duten pisua dela eta. 2011. urte hontan da ere 2006ko record-a gainditzen den urtea, %11,3gatik, 9.368.606 txangozalera iritsiz.

Turistek eredu desberdin bat mantentzen dute, aldakorragoa, 2000. urtean beherakada arin bat jasan zuten, 2003 ordea berriz ere gora egin zuten, 2004ean pixka bat jeisteko. Hemendik aurrera igotzen joan dira 2006. urterarte, bertan baitaukagu puntu maximoa, milioia gaindituz. Hurrengo urteetan daukagu jeitsiera handiena, 2009rarte, Euskal Herrian atzerriko turismoaren beherakada handiena ikusten dugularik, 2002an heldutako mailetatik behera jeitsiz. Azken bi urte hauetan (2010 eta 2011), turistak berriro ere lehengora bueltatzen dira gaur egungo 970.392 turistetara iritsiz, 2006ko maximo historikotik %4,7 puntu beherago geldituz (47.701 turisten aldea).




Hileroko joera urteetan zehar errepikatu egiten da, bai txangozaleen eta bai turisten artean, udara delarik bisitari gehien ekartzen dituen aldia. Azken hil honetan, Urrian, txangozaleen gorakada xume bat nabari da, lehenago urteetan gertatu etzena.

1.1.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Euskadira 10.338.998 atzerriko bisitari etorri ziren 2011. urtean. Lehenago urteko zifrekin konparatuz, 1.234.000 bisitari gehiago daude. Bilakaera berri honek, 2009an hasitako gorako joera egiaztatzen du.

Bisiten kopuru handiena txangozaleei dagokie (%90,6), eta ostatu gaua egindako bisitak berriz %10era iristen dira ia, atzeraldi-urteetako baino gehiagoko mailak berreskuratuz.



Txangozaleak eta turistak 2011. urtean joera homogeen bat erakusten dute, baina proportzio ezberdinetan. Txangozaleen hazkunde txiki bat aurkezten du, eta turistek %9,9 ko hazkunde ez garrantzi gutxiagokoa esperimendatzen dute. Bisitarien igoera, %7 batean turisten igoerari dagokio eta %93 batean txangozaleenari.


Gure turismo-eskaeraren ezaugarriak esanguratsuenetako bat, gure erkidegoan atzerriko turismoak duen pisu handia da, zalantzarik gabe. Funtsean, bi arazoirengatik gertatzen da: batetik, Iparraldeko mugako bi aldeetan dagoen elkarrekintza maila handiarengatik, lanen, merkataritzaren, negozioen, aisialdiaren edo senideen bidez, muga banaketaren kontzeptutik oso urrun dagoen lurralde-jarraitutasuna erakusten dutenak; bestetik, Estatuko beste leku batzuetan, eguzkia hartzeko eta hondartzara joateko opor-ereduak Euskadin duen eragin eskasaren isla da.

1.2.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011)

Emandako gau kopuruari dagokionez, desberdintasun handia dago Euskadira eta Espainiara etorritako atzerriko bisitarien artean.

Txangozaleen nagusitasuna masiboa da Euskadin, bisiten %90 ekartzen duelarik. Estatu mailan berriz, turismoari dagokionez, gutxiengokoa da, %45era ere ez delarik heltzen.

Turismoarekin kontrako gertatzen da, Euskadin bisita guztien %10era iristen ez den bitartean, Estatu mailan %56,6koa da. Euskal Herriko eta Estatuko egiturak, urteen joanean, modu antzekoan aldatzen dijoaz.




1.3.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Euskadira etorritako atzerriko bisitari gehienak errepidez etortzen dira: %97 baino gehiago horrela etortzen dira.

Errepidearen eta aireportuaren erabileraren artean dagoen alde hori txangozaleengatik gertatzen da, hegazkina gutxitan erabiltzen dutelako.

Hala ere, gaua ematen dutenen kasuan, normalean hegazkinez etortzen dira. Turista gehienak errepidez etortzen dira; lau turistetatik ia hiru.

Urteetan zehar eutsi egin zaio errepidez eta hegazkinez etorritako turisten arteko desberdintasunari. Txangozaleen sarreretan gertatutako aldaketek asko baldintzatzen dute, turismoaren artean gertatzen diren aldaketa nabarmenak ezkututzen dituztelako.




1.4.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Bisitarien sexuaren araberako banaketari buruz, gizonezkoak nagusitzen dira emakumezkoengan, %60 batekin.

Azken sei urteetako joerak, gizon-proporzioa ia 7 puntutan handitzea eragin du.

Azken urteetako bilakaeran, bisitarien sexuaren arabera, gizonezko bisitarien igoera jarraituaren joera nabarmentzen da, erdizkako banaketa (50-50) 60-40 batengatik ordezkatur.



2. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK


Euskadira 970.392 turista etorri ziren 2011. urtean. Aurreko urtean baino 97.640 gehiago dira. Esanguratsuena, 2006ko turisten kopuruaren record-a lortzetik gertu dagoela da. Baldintza orokorretan, beherakadaren hasieratik, atzerritarren merkatu turistikoa %25 bat uzkurtu zen, azken bi urteetako beherakadatik %24 bat berreskuratuz.

2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Turisten sexuaren araberako banaketa kolektibo honetan urrun xamarragoa da bisitarien multzo osoan baino. Gizonezkoek turisten %61a irudikatzen dute.

Azken bi urteetan, merkatu turistikoa indarberritu den hauetan, gizon emakumeen arteko proportzioa %61-39 batean mantendu da.

Azken 6 urteetan gizonen eta emakumeen arteko proportzioak 3 puntu portzentualetan fluktuatu du, hots aldaketa ia hautemanezina da.



2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

2011aren sarrera turistikoekin lotutako ezaugarri nagusia, aurreko urteari dagokionez 85.000 turista baino gehiagoko errekuperazioa da.

Berreskuratze joera duten bi urte hauek, aurreko urteetako krisi ekonomiko mundiala dela eta merkatu turistikoaren uzkurdurari balazta jartzen diote.


2009. urtean errepide bidezko turistak indarberritzen hasi ziren pixkanaka, baina 2010 eta 2011. urteetan da ekonomia

turistikoari bultzakada nabarmena ematen zaionean. Airezko bidean, azken bi urteetan, sektorearen berreskuratzea gertatu da, beheranzko joerari alde eginez.

Azken urtean bidaiari zenbakiaren igoera errepidez egindako bisitetara xedatzen da batez ere. Hauek, 70.669ean handitu dira, airez egindako bisita turistikoak berriz, gutxiago igo dira, 17.000 inguru.

Hazkunde hauek %6,9 dakarte airez eta errepidez %11,1a, %9,9eko neurrizko hazkunde ertain bat eraginez.

Bi sarbide hauen arteko turisten pisuaren erlazioa, desorekatzen jarraitzen da, azken urteetan bezala, errepidearen alde. Turisten bisiten %72,8a errepide bidezko sarbideari zor zaio.




2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2008 – 2011)

T1.- Euskadira etortzen diren bisitariak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2008 – 2011 urteak / Turistas con destino en el País Vasco por año y mes de la visita según modo de transporte. Años 2008 – 2011

	GUZTIRA/ TOTAL	Errepidea/ Carretera	Aireportua/ Aeropuerto
Guztira/Total	817.081	560.360	256.721
2008			
Urtarrila/Enero	36.764	24.089	12.675
Otsaila/Febrero	52.094	36.088	16.006
Martxo/Marzo	60.297	35.522	24.775
Apirila/Abril	56.773	34.024	22.749
Maiatza/Mayo	76.810	47.186	29.624
Ekaina/Junio	67.253	48.491	18.762
Uztaila/Julio	127.026	101.943	25.083
Abuztua/Agosto	135.299	107.047	28.252
Iraila/Septiembre	72.477	40.693	31.784
Urria/Octubre	58.075	37.035	21.040
Azaroa/Noviembre	36.809	24.376	12.433
Abendua/Diciembre	37.404	23.866	13.538
Guztira/Total	780.759	569.552	211.207
2009			
Urtarrila/Enero	32.459	21.396	11.063
Otsaila/Febrero	41.680	29.387	12.293
Martxo/Marzo	50.531	36.304	14.227
Apirila/Abril	53.981	34.565	19.416
Maiatza/Mayo	54.290	37.254	17.036
Ekaina/Junio	58.193	41.732	16.461
Uztaila/Julio	149.633	123.617	26.016
Abuztua/Agosto	124.428	101.728	22.700
Iraila/Septiembre	71.668	50.979	20.689
Urria/Octubre	57.743	42.294	15.449
Azaroa/Noviembre	42.520	28.104	14.416
Abendua/Diciembre	43.633	22.192	21.441
Guztira/Total	882.750	635.362	247.388
2010			
Urtarrila/Enero	33.529	18.351	15.178
Otsaila/Febrero	48.625	31.285	17.340
Martxo/Marzo	65.439	44.193	21.246
Apirila/Abril	66.605	44.007	22.598
Maiatza/Mayo	66.141	45.414	20.727
Ekaina/Junio	71.309	49.545	21.764
Uztaila/Julio	149.496	124.071	25.425
Abuztua/Agosto	140.386	115.365	25.021
Iraila/Septiembre	78.781	58.719	20.062
Urria/Octubre	68.021	49.427	18.594
Azaroa/Noviembre	53.779	29.001	24.778
Abendua/Diciembre	40.639	25.984	14.655
Guztira/Total	970.392	706.032	264.360
2011			
Urtarrila/Enero	37.635	19.502	18.133
Otsaila/Febrero	54.617	35.313	19.304
Martxo/Marzo	86.805	64.356	22.449
Apirila/Abril	75.585	50.693	24.892
Maiatza/Mayo	64.435	45.817	18.618
Ekaina/Junio	77.871	53.674	24.197
Uztaila/Julio	161.579	131.809	29.770
Abuztua/Agosto	144.223	119.929	24.294
Iraila/Septiembre	97.882	66.153	31.729
Urria/Octubre	81.209	62.534	18.675
Azaroa/Noviembre	49.065	32.101	16.964
Abendua/Diciembre	39.486	24.151	15.335

Lehor-bidezko eta aire-bidezko turistak kopurua azken lau urteetako hoberena da.

Euskadiko atzerriko turistak gehienbat udako hilabeteetan etortzen dira, hots, uztail eta abuztuan, eta udaberriko eta udazkeneko turista kopurua neguko baino askoz ere handiagoa da.




Izan ere, uztail eta abuztuan, dagoen turismo-eskaeraren herena biltzen da.

Azken urteetan, uztailak abuztuak baino sarrera turistiko gehiago metatzen ditu, lehor-bidezko nahiz aire-bidezko sarreraren ondorioz. Eta 2011 honek, irailan eta urrian, turistak igoera nabarmen bat aurkezten du.

Udakoak ez diren oparraldi ziklikoak, Aste Santua esaterako, etorri turistikoaren une bateko igoera zehazten dute. Gehikuntza hau askoz gutxiago hautematen da, hala ere, Gabonetan zehar, aireko merkatuaren jeitsiera nabarmena izan denean, hilabeteko bidaiarien erabateko zifra joan den urteko balioen azpira eramanez.


Bidaiari kopuruaren gorakadak, lehen urtekoekin alderatuz, hileroko gertatu dira, abendua, maiatza eta azaroan izan ezik. Hilabeteko gorakada handiena, Aste Santuaren efektua kontuan hartu gabe, Irailan gertatu da, %24,25 batekin, urriak jarraituz, %19,39 batekin. Eta beherakada handiena azaroari dagokio %8,77 batekin.

Errepidez eta aireportutik sartzen diren bidaiariaren arteko portaera, bi bidaiari-tipologiaren artean bereizitako joerak markatzen du. Horrela, errepidez sartzen direnek hilabete guztietan zehar bere fluxuak areagotu egiten dituzte, abendua salbuetsiz, ordea aire bidez sartzen direnek maiatza, abuztua eta azaroan txikiagotu egiten dituzte. Aipatzekoa da irailan aire-bidezko turisten gorakada, %58,15 batekin.



2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea


Turisten sexu banaketari dagokionez proportzio berdina aurkezten dute, Euskadira etortzeko erabilitako sarbidea edonolakoa dela ere. Banaketaren osoaren batzabestekoa balio berekin bat dator, gutxi gorabehera emakumeen % 38a gizonen %62aren aurrean.



Efektu hau aurreko urteetan ematen den bera da, nahiz eta balio portzental orokorretan desberdintasun txikiak egon.

2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2008 - 2011)

Euskadi bisitatzen duten atzerriko merkatu nagusiak, urte hontan gorakada bat jasan dute, merkatu portugaldarrak, Europako gainerakoak eta munduko beste herrialdeetakoak izan ezik. Luxenburgon eta Holandan bizi diren herritarrek Europako gainerako multzoa murrizten dutenak dira, eta Kanada eta Latinoameriketakoek munduko beste herrialdeen multzoa beheraka eraman dute.




Frantziarrek, turista-rankingeen lehen lekua betetzen dute eta gainerako bizileku-herrietatik oso aldentuta daude, oso bilakaera positiboa aurkezten dutelarik (%19). Bi lurraldeen arteko hurbiltasuna da arrazoi nagusia. Euskadi bisitatzen duten 2 turistetatik bat Frantziarra da.

Azken finean, urte honetan, europar turistaren merkatuak turista multzo osoaren %90 baino gehiago irudikatzen du, Ipar Ameriketakoak %2,8, Latinoamerikarrak %2,0 eta munduko gainerako herrietakoak %3,3.

2.6.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Atzeritarrak gehienbat errepidez etortzen dira, distantzia ertain eta luzeko turismoaren nolabaiteko mendetasuna duelako. Horrela, bisitarien %54,3 Frantziatik etortzen da, 527.000 turista gutxi gorabehera, eta haietatik, ia %73, errepidez etortzen da. Aldera, aire-bidez puntuz puntuko airezko konexioak dituzten herrialdeetakoak nagusitzen dira, Erresuma Batua esaterako.




Euskal turismoaren industriak distantzia ertain eta laburreko frantziar turismoarekiko duen mendetasuna nabarmen handitu zen 2011an; hori izan zen, hain zuzen, ezaugarri nagusia. Garrantzi gutxienerako merkatuak, ameriketarra eta latinoamerikarra, portugaldarrekin batera, azken urtearekin alderatuz, indarra galdu duten bakarrak dira.

Eskariaren hazkundea ez da komuna merkatu guztietan, adibidez merkatu frantsesa, bereiziki lehor-bideetatik, dinamikoa aurkezten da, 83.000 turistako igoera batekin. Merkatu alemana aire bidetik 16.000 baino gehiagotan igotzen da.

2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea

Lehenago esanda dagoen bezala, turista gizon eta emakumeen proportzioaren batezbestekoa, %62 - %38koa da hurrenez hurren. Banaketa honi dagokionez, nabarmenki desbideratzen den merkatu bakarra portugaldarra da, gizonetako turistaren kopurua emakumeena baino askoz handiagoa delarik.


Bidaiatzeko era hau ez da urte honetan bakarrik eman, aurreko urteetan, portugaldarrek era berean egiten zuten, gizonak nagusituz.



Turisten gorakadan, turisten multzo osoko ia proportzio berdina mantentzen da, %57 gizonetzko %43 emakumezkoen aurrean, eta aurten gehiagotu diren 83.000 frantsesen artean, 52.000 gizonetzkoak izan dira eta 32.000 emakumezkoak, %62-38.

2.8.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Atzerritar gehienak, ia %60, funtsean aisialdirako etorri ziren. Gainerakoak, negozioak egiteko, ikasteko eta arrazoi pertsonalengatik etorri ziren. Arrazoi nagusi horietatik kanpo, Euskadira joateko motibazioak eskasak dira.




Merkatu turistikoaren berrindartzea oporretako eta aisiko arrazoiei dagokie. Aldera, Euskadira arrazoi pertsonalengatik datozen turistak nabarmenki jeitsi dira, 2009ko eta aurreragoko urteetako proportzio parekarrietaraino.

Hori dela eta, oporretako eta aisiko arrazoiengatik etorritako bisitariek igoera bat aurkezten dute, 158.000 turista baina gehiagokoa. Aldiz, arrazoi pertsonalengatik etorritakoek (osasuna, familiarri bisitak, etab.) beherakada bat jasan dute, 71.600 baino gehiagokoa. Beste arrazoiaren multzoa, aurrekoetan sailkatu gabekoak, aurten gehien jeitsi den multzoa da, 14.000 bidaiari galduz.

2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011)

Bai Euskadin bai Estatu mailan, eskari turistikoaren egiturak antzeko eredu bat jarraitzen du, aisiagatik bisiten nagusitasun argian oinarritutuz. 2010ean aldaketak egon ziren arrazoi pertsonalengatik Euskadira etortzen diren turisten arteko patroiean, lanagatik edo ikasketengatik etortzen direnak baztertuz. Baina 2011ean, egoera lenokora itzultzen da, arrazoi pertsonalak nabarmenki jeitsi baitira aurreko urtearekin konparatuz.



Hala ere, antzekotasuna ez da osoa, eskaera horren funtsezko alderdietan bakarrik delako. Izan ere, Estatuan, aisialdirako turismorako joera handia dago, normalean eguzkia hartzeko eta hondartzara joateko erabiltzen baitute, baina Euskadiren kasuan eskaera hori eskasa da, turismo-azpiegitura horiek ez dituelako eta, agian, klimaren ereduarekin lotutako zenbait ezaugarri ere ez dituelako.

Tradizioz, negozioiek pisu handia izan dute Euskadira etortzen diren turisten artean. Horrela, turismo-eskaintza gehiena bide horri jarraitu dio. Gaur egun, krisi internazionala dela eta, estantzi turistikoaren artean bere pisua %19 aldera aurkitzen da, lehengo urteko ariketan baina puntu bat gutxiago izanik eta Estatu mailan daukan eraginaren bikoitza baino gehiagokoa delarik. Alde handi horren arrazoiak bi dira nagusiki: batetik, euskal industria-egituraren bizitasuna; bestetik, aisialdiko eskaera-eredu masiborik ez dagoelako, eguzkia eta hondartza nagusiki.


Antzekoa gertatzen da bisita pertsonaleko ereduarekin. Euskadik osasun-aisialdiko eskaintza du, eta bezero tradizionalak finkatzen dituen heinean gora egiten du. Gainera, bere mugako egoerak eta bere izaera iragazkorrak eta eskualde arteko mugimenduek, arrazoi pertsonalengatik fluxu turistikoak dakartza. Faktore hauek Euskadin motibazio honek Espainian duen pisua laukoiztera heltzeak nolabait azaldutzen du. Hala ere, negozio arrazoiarekin gertatzen den moduan, pisu erlatibo handi horrek, aisialdi-eredu masiborik ez egotearekin du zerikusia.

Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-eskaeraren aldean, Estatukoak egonkor eutsi dio eskaeraren motibazio-egiturari azken urteetan.

2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Oinarritzko alderdietan dauden antzekotasunez gain, hala nola motibazio guztien artean aisialdi nagusitzearena, errepedez eta hegazkinez etortzen diren bisitarien motibazioen artean alde nabarmenak daude.

Lehendabizi, errepedez etortzen diren turista gehienak aisialdirako etortzen dira, hegazkinez etortzen direnen aldean. Bigarren, hegazkinez etortzen diren turisten artean arrazoi pertsonal gutxi daude Euskadira etortzeko. Gehienbat, aisialdirako (%45) eta negozioak egiteko (%44) etortzen dira.



Nabarmendu behar da azken urteetan


aisialdirako eta oporretarako bisitek izandako bilakaera. Hauek, sarreraren bi tipologietan, nabarmenki jeisten zihozten, baina orain, 2011ean, errepide bidezko turistek, aisiagatik etorritakoak, beren pisua nahiko handitu dute %65era iritsiz. Igoera hau 154.000 turistei dagokie, ordea, aire bidez datoztenak aurreko urteko bolumena mantentzen dute.

Arrazoi pertsonalengatik errepide bidez etortzen diren turistak 68.000tan jeitsi dira. Errepide bidezkoen arteko beste arrazoiak, eta aire bidezko arrazoi guztiak, aurreko urteko zifrak mantentzen dituzte funtsean, horregatik turista globalen zenbakiaren igoera oporregatik eta aisiagatik lehor-bidetik datozten turistek eragin dutela antzeman daiteke.

2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea

Euskadiko turista atzerritarrak bere sexuagatik eta bidaiari hau egitera eraman dituzten arrazoiagatik bereizten dituztenean, arrazoi batzuetan banaketa oso desberdina dela orokorrera eta haien artean egiaztatzen da. Oporrak eta aisia, zerbitzu pertsonalak eta zehaztu gabeko beste arrazoiak dira gizon eta emakumeen artean homogeneouski banatzen direnak, globalki turistek egiten duten proportzio berdinean.

Lan motiboetaz, negozioez, hitz egiterakoan gizonen presentzia emakumeen aurrean funtsean nagusitzen dela ikusten da (85 - %15).




Bestalde, ikasketengatik etortzen direnen proportzioa irauli egiten da, emakumezkoak %52a lortuz gizonzkoen %48aren aurrean.

2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2008 - 2011)

2011ean, atzerriko eskari turistikoan egonaldi laburrak nagusitzen dira, baina aurreko urtean baina proportzio handiagoan. Horrela, %63k inguruk 3 gau ematen dituzte, eta ez da %14ra heltzen astebete baino gehiagoko bisitak egiten dituzten bisitarien taldea.

Ohikoak dira bereziki 2 edo 3 gauko egonaldiak, asteburuko edo jai-zubietakoak.



Ostatu-gau bateko egonaldiak %16an igo ziren lehengo urtean, 2 eta 3koak %12an, bi asteoak %29an eta 15 ostau-gau baina gehiagokoak %0,9an. Lehengo urtearekin konparatuz jeitsi den tartea, 4 eta 7 ostau-gau artekoa da, %4 bat jeitsi dena.


2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011)

Atzerriko turismoaren portaera Espainian oso bestelakoa da, izan ere, gehienbat, 4 eta 7 gau artean ematen dituzte, eta hiru egun baino gehiagoko egonaldiak nagusi dira (ia %81); Euskadin berriz, %36ra ere ez dira heltzen.

Bi aste baino gehiagoko bisiten ehunekoa bakarrik da antzekoa.

Antzekotasun horrek ez du ezkutitzen turismo-ereduen

desberdintasun handia. Euskadik hurbileko inguruaren mendetasun handia du, sarbide azkarra duelako, errepidez nagusiki, eta motibazio nagusiak aisialdia, kultura eta pertsonalak dira. Oso turista gutxi etortzen da eguzkia hartu eta hondartzara joateko, eta, horrek, Espainiatik etorritako turista kopurua mugatu egiten du.




2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Sartzeko erabili den moduaren arabera, egonaldiaren luzerak oso joera desberdinak mantentzen ditu.

Hegazkinez etortzen direnek gau gehiago ematen dituzte, errepidez etortzen direnen aldean. Horrez gain, gau bateko egonaldiak ekartzen ditu, eta gehienak 2 eta 15 gauetakoak dira. Bisitak, normalean, 4 eta 7 gau artekoak dira.

Bi asteko ostatu-gauak eta gehiagoko egonaldiak, Euskadira aire bidetik sartzten diren turista atzerritarren %30a dira.




Horren aldean, errepidez etortzen direnek, gehienbat, hiru gau ematen dituzte gehienez, eta oso gutxi dira astebete baino gehiago ematen dutenak.

Eskaeraren igoera errepidean honela banatuko genuke: egun bateko egonaldiak (%16,7), bi eta hiru egunekoak (%12,9), bi astekoak (%18,4) eta hamabost gau edo gehiagokoak (%64,9). 4 eta 7 egunen arteko geruzan galera bat nabari da (%7,6). Aire bidez sartzen direnen artean, egoera aldatu egiten da, igoera handiena 8 eta 15 gauen artekoek (%38,1) lortu dute, egun batekoak jarraian dijoaz (%14,4) eta azkenik 2 eta 3 gauekoek, %8 batean bere kuota handituz. Aldiz, bi astetik gorako egonaldiak egiten dituzten turistak dira jeisten direnak, %20 batean.

2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea

Egonaldiak eta turisten sexuak, erlazio proporzional bat mantentzen dute, ostatu-gauak igo hala, emakumezko turistak igotzen dira, 8 eta 15 gaueko turistetan izan ezik, pixka bat uzkuzten baitira. Gau bateko egonaldia egiten duten gizonezkoak %65 dira eta ostatu gauak igotzen dijoazen arabera bere presentzia jeisten dijoa, hilabete baino gehiagoko egonaldietan %47 direlarik.




Emakumeak, gau bat pasatzen duten turisten %35etik, 30 gau baina gehiago pasatzen dituzten %53ra aldatzen dira.

2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. 2011 urtea

Batez beste 5,1 gau ematen dituzte atzerritarrek, eta haien jatorria zein den gau kopurua aldatu egiten da.

Herrialde ez europarretako jatorria dutenak nabarmentzen dira. Beren egonaldiak 14 egunetako media daukate, alemaniarak, britaniarrak, italiarrak, portugaldarrak eta proportzio txikiagoan beste herrialde europarrak dauzkaten mediak bikoiztuz.

Beste muturrean, frantsesak, 2,8 egunekin, bisita motzenak egiten dituztenak dira.




2010. urtearekin konparatuta, herrialde guztietako turisten egonaldien laburpena nabarmentzen da, portugaldarrena izan ezik, lehengo urteko 3,6tik igo egin delarik, eta italiarrena aldaketa gabe mantentzen dena.

2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa. 2011 urtea

Egonaldien iraupenaren batezbestekoa, beste ariketetan bezala, Estatuan eta Euskadin banaketa antzeko bat jarraitzen dute, Portugaleko herritarrena izan ezik, Euskadin Estatuan baino gau bat gehiagoko egonaldiak egiten dituztelarik, eta Munduko Beste Herrialdeetakoek Euskadin bi egun gehiago igarotzen dituztenak.

Besteak, Estatuan pixka bat luzeagoak izaten dira, frantsesak zuzenki, Euskal Herrian bisitari hauek egiten dituzten egonaldiak luzeran hirukoiztuz.

Frantziako turistak egonaldi kopurua atzeritarrek Euskadin eta Estatuan egindako turismoaren erakusgarria da, errepidez etortzen den distantzia ertain eta laburreko turismo baten oso mendekoa baita.




2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Azken urteetako joerari jarraituz, turistek gehien bat hotelak nahiago dituzte. Ostatu mota hau da beste guztien aurrean aurten gehien igo den ostatu mota. Dohako etxebizitzaren erabilerak, berezko etxebizitzak eta familia edo lagunak ere, gora egin du.

Alokatutako etxebizitza ez da oraindik onartua izan turistak artean, hauen %2,5 bakarrik adierazten du. Egia da, eredu honetan dagoen eskaintzak ez diola bere igoera handiago bati laguntzen.

Krisiaren eragina, atzerriko turistak artean, badirudi garrantzia galtzen hari dela ostatu mota autatzeko garaian, hotelen onerako aurreko urtetik %13 igoz.



Dohako etxebizitzaren barruan, berezko etxebizitzak %26 bat igo dira, familia eta lagunak berdin mantentzen direlarik.


2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Hotel sistemaren hazkundea 2010.urtearekin konparatuz, %10 batean errepide bidezko turistek dagokie eta %19 batean aire bidezkoiei.

Errepide bidezko turistek lehengo urteko banaketa mantentzen dute orokorrean, ostatu mota desberdinen artean dezima batzuk bakarrik aldatuz.

Lehor-bidean berezko etxebizitza ostatu mota %52 bat igo da, eta kanping-a %25 bat. Beste ostatu motak positiboki gehiagotu dira ere.


Aldiz, aire-bidezko turistek erabilitako ostatu motak hotelen (%19) eta kanping-aren (%17) kasuan bakarrik gehiagotu dira. Gainontzeko ostatu motak behera egin dute, %47 bat alokairuzko etxebizitzak, eta %9 bat famili eta lagunak.



2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2008 – 2011)

Euskadiko eta Estatuaren ostatu-egitura antzekoa da oro har: hotela eta altu dauden lekuak nagusitzen dira doako etxebizitzaren artean. Aldeen artean, Euskadin, oso gutxitan aukeratzen dituzte alokatutako etxebizitzak, eta askotan bestelakoak.

Azken urteetan joerak egonkor jarraitu du. Aldaketa handirik gertatu ez bada ere, bilakaerari begiratuta, badirudi hotela dela ostaturik gustukoena bi testuinguruetan.




2011. urte hontan, Espainiako atzerriko turista guztien ostatu motaren banaketak, hotelen eta alokairuzko etxebizitzaren erabileraren gorakada bat suposatzen du, eta beste ostatu moten beherakada. Euskadin, ordea, hotelak eta zehaztu gabeko beste ostatu motak dira igotzen direnak beste ostatu moten aldean.

2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta sexuaren arabera. 2011 urtea

Sexuagatik dauden aldaketak, autatutako ostatu motaren arabera, antzeko mantentzen dira, %57 eta %67 baten artean (gizonen kasuan).

Ostatu mota guztietan gizonezkoak dira proportzio handiago bat mantentzen dutenak, %58 bat kanping-ean eta %67 aldera zehaztu gabeko beste ostatu motetan.

Proportzio hauek egonkor mantentzen dira aurreko urtearen egoera turistikoa dagokionez.




2.22.- Euskadira etortzen diren turistak bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)


Euskadira datozen turistek bere bidaiaren antolatzen duten modua, ia bere osotasunean, pakete turistikorik eskuratu gabe da (%96,4rik).

Aurreko urteari buruz esperimendatutako bilakaerak, ez du islatzen begietsitako bi antolaketa-formen arteko hamarrenean egon den dezimal batzuen aldaketa baino ez. Antolaketaren egonkortasuna sendoa da.

Logikoa da pentsatzea teknologien erabilpena geroz eta handiago den garai honetan, Internetena adibidez, bidaien antolaketa pertsonalari laguntzen diola, informazio-bilaketak eta prezio lehiakorragoak aurkituz.



2.23.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)




Antolaketa era hau, handiagoa da errepidez datozen turisten artean, %100k ia ez duelarik pakete turistikoa erabiltzen, bidaia bere ibigailuan egitean. Erabiltzea onartu duen portzentai txikia (%0,3), errepidez, baina autobusez etortzen diren turista gutxi batzuk konposatzen dute.

Aire bidetik datozen bidaiarien multzoa, pakete turistikoa erabilpena agertzen den multzoa da, balio ez oso nabarmen batekin 2011ean (%12,3).

2.24.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta sexuaren arabera. 2011 urtea

Pakete turistikorik gabeko turistak bere sexuari dagokionez, multzo osoak egiten duen moduan banatzen dira.

Emakumezkoak dira beren bidaiak antolatzeko garaian pakete turistikoa gehien erabiltzen dutenak, erdia baina gehiagora iritsiz (%51).




Pakete turistikoa erabiltzen duten emakumezkoen pixu hau, 3 puntu portzentualetan igo da azken urtean gorakako joera bat adieraziz.

3. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK

3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Euskadi mugan egoteak, eta zehazki, mugaren bi aldeetako harremanen eta trukeen eskualdeko portaerak, txangozale ugari egotea dakarte. Horrez gain, ez dago turismo-eskaintza masiboa, alegia, eguzkia eta hondartzaren eskaintza moduko eskaintzarik. Horren ondorioz, atzeritarrek egindako 10 bisitetatik 9tan ez dute gaurik ematen. Donostia mugatik hurbil egotea, eta, batez ere, haren ertzean bertan dagoen hiri-kokapen garrantzitsua, gakoak dira merkataritza-, lan- eta aisialdi-harreman garrantzitsuak ezartzeko. Horrela, etengabe etortzen dira txangozaleak.




2011ean 9.370.000 txangozale iritsi ziren. Honek %13,9ko hazkunde xume bat suposatzen du lehengo urtearen aldean, aurreko urteetako berreskuraketa finkatuz.

3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)


Txangozaleen arteko banaketa sexuaren arabera, bisitarien artean hauek daukaten pisu handia dela eta, bisitarien multzo osoak dituen emaitzak lortzen ditu, non gizonetzkoak txangozaleen %61a diren.

2011ean gizon eta emakumeen arteko aldea nabarmenagoa egiten da, gizonetzkoak irabaziz. Azken urteetan, gizonetzko txangozaleen gorakada jarraitua izan da.



3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2008 – 2011)

Bisita kopuruak nabarmen egin zuen gora udan, abuztuan bereziki, udaberrian eta udazkenean baino zertxobait gehiago. Otsailak interakzio gutxiena aurkezten du, hilabete hoberenaren laurdenera iristen ez delarik.



T2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2008 – 2011 urteak / Excursionistas con destino en el País Vasco por año y mes de la visita según modo de transporte. Años 2008 – 2011

	GUZTIRA/ TOTAL	Errepidea/ Carretera	Aireportua/ Aeropuerto
Guztira/Total	7.841.700	7.835.570	6.130
2008			
Urtarrila/Enero	488.583	488.369	214
Otsaila/Febrero	547.348	547.158	190
Martxo/Marzo	570.793	570.042	751
Apirila/Abril	582.852	582.281	571
Maiatza/Mayo	685.915	685.507	408
Ekaina/Junio	648.892	648.429	463
Uztaila/Julio	883.170	882.714	456
Abuztua/Agosto	1.157.148	1.156.272	876
Iraila/Septiembre	659.516	658.892	624
Urria/Octubre	572.231	571.301	930
Azaroa/Noviembre	500.511	500.436	75
Abendua/Diciembre	544.741	544.169	572
Guztira/Total	8.042.066	8.039.381	2.685
2009			
Urtarrila/Enero	490.963	490.776	187
Otsaila/Febrero	483.144	483.013	131
Martxo/Marzo	520.955	520.644	311
Apirila/Abril	645.165	644.823	342
Maiatza/Mayo	658.478	658.275	203
Ekaina/Junio	617.234	617.022	212
Uztaila/Julio	807.272	807.272	0
Abuztua/Agosto	1.337.454	1.336.750	704
Iraila/Septiembre	722.233	722.233	0
Urria/Octubre	587.200	586.846	354
Azaroa/Noviembre	557.519	557.440	79
Abendua/Diciembre	614.449	614.287	162
Guztira/Total	8.222.104	8.212.117	9.987
2010			
Urtarrila/Enero	499.162	498.837	325
Otsaila/Febrero	499.805	499.554	251
Martxo/Marzo	654.587	654.569	18
Apirila/Abril	605.681	605.626	55
Maiatza/Mayo	570.326	570.188	138
Ekaina/Junio	611.298	608.530	2.768
Uztaila/Julio	825.780	824.726	1.054
Abuztua/Agosto	1.403.602	1.402.050	1.552
Iraila/Septiembre	794.981	793.300	1.681
Urria/Octubre	675.663	675.091	572
Azaroa/Noviembre	506.757	505.905	852
Abendua/Diciembre	574.462	573.741	721
Guztira/Total	9.368.606	9.355.035	13.571
2011			
Urtarrila/Enero	578.590	578.134	456
Otsaila/Febrero	498.760	498.455	305
Martxo/Marzo	576.647	576.338	309
Apirila/Abril	591.103	590.233	870
Maiatza/Mayo	625.250	623.561	1.689
Ekaina/Junio	727.798	726.304	1.494
Uztaila/Julio	1.045.218	1.043.203	2.015
Abuztua/Agosto	1.647.579	1.645.869	1.710
Iraila/Septiembre	798.518	796.894	1.624
Urria/Octubre	991.019	989.278	1.741
Azaroa/Noviembre	589.549	589.085	464
Abendua/Diciembre	698.575	697.681	894

Sasioaren araberako joera horretan, aisialdiak eta merkataritza-harremenek laguntzen dute. Trukeak eskualdeen artean dira batik bat, nazioarteko trukeen aldean. Hala ere, sasoiko izaera hori ez da hain nabaria turisten artean.

Txangozaleen bisiten igoera ez zen homogenea izan urte osoan zehar. Aldiz, urte guztian biltzen da funtsean, otsailetik apirilera dihoan tartean izan ezik.

Urria da igoera gehiena jasaten duen hilabetea, %46,7 batekin, Irailak jarraituz %26,6ko igoera batekin.

Abenduko txangozaleen igoera ez da atzean gelditzen, %21,6 batekin, batez ere muga espaniar-frantziarraren bi aldean arteko prezioen diferentzia dela eta, txangozale frantses askok beren gabonetako erosketak gipuzkoan egiteko aprobetxatzen baitute.

Otsailak lehengo urteko txangozale zenbaki berdina mantentzen du, %0,2ko galera batekin. Apirila %2 batean jeisten da eta martxo gehien jeisten den hilabetea da %12 batekin, lehengo urteko txangozaleen bidaien zenbakiarekin konparatuz.

Zenbaki absolutotetan aldaketak txangozaleetan, 498.000tik otsailean, 1.647.000era abuztuan dihoaz.

Urteko balantza globala oso positiboa da 1.146.502 txangozaleen bisitekin.


2011 urte hontan, abuztuan bisiten tontor historiko bat ezarri da, 1.647.579 bisitarirekin, lehengo urtean baino 244.000 gehiago.

Urtero, aire-bidezko txangozaleak oso gutxi dira lehor-bidezkoen aurrean. Errepidearen portaerak, txangozaleen guttizkoaren hileroko fluktuazioa berregiten du, ordea, aireportuan da gora-behera esanguratsuenak dauden sarrera, baina garrantzi handirik gabekoak, nabarmen gutxiko balio absoluto batzuen gainekoak baitira.

3.4.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Errepidez datozen txangozaleak dira txangozaletasunaren joera markatzen dutenak, aireportutik heltzen direnak erresidualak bezala kontuan hartzerakoan.


2008. urterarte errepide bidezko txangozaleek beherako joera bat aurkezten zuten, baina azken hiru urteotan gorako joera bat nabari da, aurten 1.143.000 txangozale gehiago daudelarik.



3.5.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Euskadi bisitatzeko duten errepidez datozen atzerritar turistek bizilekua, mugarekiko hurbiltasunagatik, ondoko herrialdekoa, Frantziakoa, da ia bere osotasunean.

Gainerako bizilekuak (aurten %5,7), gehien bat, Frantzian oporretan dauden eta Euskadira eguna pasatzera sartzen diren (gaurik pasa gabe) munduko beste herrialdeetako bidaiariekin bat datoz.




3.6.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2008 – 2011)

Zerbitzu pertsonalak eta aisiak Euskadira heltzen diren txangozaleen bisita gehienak azaltzen dituzte. Bereziki lehenengoak, lehen faktore motibatzaile bezala eta arrazoiaren osagarritasunak alde batera utziz, Euskadira datozen atzerriko hiru txangolarietatik bat azaltzen du.

2010. urtetik aurrera, beste arrazoiak gorakada handi bat aurkezten dute, erosketen arrazoi epigrafe hontan sailkatu baita, aurreko urteetan zerbitzu pertsonaletan sailkatuta zegoelarik. Bere igoerak %105 bat suposatzen du.


Zerbitzu pertsonalengatik errepide bidezko txangozaleen bisitak %38,2an daude. Aisiagatik datozenak %31,5 bat suposatzen dute errepide bidezko txangozaleen bisita guztien artean, eta lanagatik datozenak guztiaren %6,3a. Beste arrazoiaren atalak bisiten %23,6 bat taldekatzen dute.



3.7.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2011 urtea

Euskadira etortzen diren errepide bidezko txangozaleak, lana eta negozioen arrazoiengatik, %80 batean gizonezkoak dira eta %20 batean emakumezkoak artean ere ematen zen arrazoi berdina aztertu ezker.

Gainerako arrazoiak aldaketa txikiak dituzte bere sexuarekiko banaketan.



4. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN GASTUAK


Atzerritarrek Euskadin egindako gastuak eta helduera kopuruak antzeko bilakaera izan dute. 2011ak hazkunde bat erregistratzen du ondoz ondoko hirugarren urtez, 2006tik erregistratuz zetorren gastua urritzearen kontra, %24,9ko igoera batekin, lehengo urtean erregistratutako zifrari dagokionez.

Bisitarien hazkundera %13,6koa izan da, bere gastuarena handiagoa izan delarik. Hau, aurren pertsonako gastua, lehengo urtekoarekin konparatuz, 12,55 eurotan igo delako gertatu da (%10,4).

Pertsonako eta eguneko batezbesteko gastuek ere 12,68 euroko ikaragarritzko hazkundera nabaritu dute, hau da, %15,1ekoa.

4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Informazio eskuragarri dugunetik, 2006. urtean da bisitarien gastuak bere puntu altuena lortu duenean, ondoren jeisten joateko 2008an minimora iritsi arte. 2008an da Euskadiko ekonomia turistikoa igotzen hasten denean, aurren bere egoera hobereenera iritsi arte.



4.2. Euskal Herrira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa. 2011 urtea


Euskal Herria bisitatzen duten bisitariak egindako gastua %38,2 batean txangoetan egindako gastuez eta kontzeptu nagusietan ez metatutako beste gastuez konposaturik dago. Bisitari hauek egiten duten 530 milioi euroko ekarpenetik, 453 milioi txangozaleenak dira.

Txangozaleak, ez dute pakete turistikoen gastuan ekarpenik egiten, ezta ostatuan ezta elikagaietan ere.




Garrantziko bigarren gastua garraioan egindakoa da, 471 milioi eta erdi baino gehiagokoa. Jarraian jatetxe, taberna eta kafetegietan egindakoa dago 193 milioirekin eta bukatzeko 132 milioirekin ostatuan egiten dena. Jangaietako gastua 33 milioikoa da eta denetan baxuena pakete turistikoen gastua 26 milioirekin.

4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)



Gastu totalaren %36a, aisia eta oporretako arrazoiengatik egindako bisitei dagokie, aurtan beren kota altuenera iritsiz. Zerbitzu pertsonalengatik datozenen gastuak, arrazoiaren ranking-ean lehenengo postua mantetzen zetozenak, bigarren postura jeisten dira, bere ibilbideko posturik txarrenera, eta aurtengo gastu totalaren %25 suposatzen dute. Hirugarren postuan dagoen gastua, beste arrazoiak betetzen dute, %21 batekin, laneko arrazoiengatik eginiko gastuak jarraituz (%15) eta azken postuan ikasketengatik bidaiatzen dutenen taldea dago, %3 batekin.

4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien batez besteko gastua, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)




Eguneko gastu handiena negoziengatik datozen bidaiariei dagokie, 134 euro eguneko, lehenengo urtean baino %28 gehiago. Bigarren gastu altuena beste arrazoiaren epigrafeari dagokio, 123 euroekin, %50 bat igoz. Aldiz, aisiagatik, arrazoi pertsonalengatik eta ikasketengatik datozen bisitariak, antzeko zifrak dituzte, 81 eta 88 euroren artean. Azken urte hontan ikasleek beren gastua bikoiztu egin dute.

Negoziengatik datorren bidaiariaren eguneko gastua, batezbestekoa baino %39 bat handiagoa da, beste arrazoiarena %27 bat eta gainerako arrazoiarena batezbestekoaren azpitik aurkitzen da, hau, 96,78€ delarik.

4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Ikasleen bisiten iraupena beste edozein bidaiariena baino luzeagoa da, eta hori dela eta, haien batez besteko gastu osoa handiagoa da. Hala ere, datu horretan kontuan hartu behar da bidaiari kopurua eta eguneko egindako batez besteko gastua, ikasleek egindako gastu osoa oso txikia baita.





Nabarmendu behar dugu Euskadira lanarengatik eta negozioak egiteko etortzen diren bisitarien batez besteko gastua. Izan ere, 279 euroko gastua egiten dute, aisiadirako etortzen direnen aldean (141 euro), eta bereziki arrazoi pertsonalengatik bisita egiten dutenen aldean (92 euro).


Pertsonako batezbesteko gastua 132,99 eurokoa da. 2010an lortutakoa baino %10 gehiagokoa.

4.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2011 urtea

Atzerriko bisitarien osotasunak Euskadin, gizonen kasuan, 859 milioiko (%62) gastu turistiko bat eragiten du, emakumezkoenak berriz 528 milioikoa.



Turistak/ Turistas



Txangolariak/ Excursionistas

Gizonezko turistek egindako gastuak, gastu osoaren %59a irudikatzen du eta 337 milioi euro baino gehiagora iristen da. Emakumezko turistek ordea, 231 milioi gastatzen dituzte.


Euskal Herrira egiten dituzten bisitetan gizonezko txangozaleek 522 milioi euro gastatzen dituzte gutxi gora-behera, txangozaleen gastu totalaren %64a suposatzen duena. Ostatu gaurik igarotzen ez duten emakumeek 297 milioi euroko ekarpena egiten dute.

4.7.- Euskadira etortzen diren bisitarien eguneko batezbesteko gastua (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2011 urtea

Gizonezko bisitarien eguneko gastuaren batezbestekoa 103 eurotan ezartzen da eta emakumeena ia 89 eurotan. 14 euroko aldea.

Turisten artean, gizonezkoek egiten duten eguneko (125 euro) batezbesteko gastua emakumeek egiten dutena (102 euro) baino %22,7 handiagoa da.


Txangolarien arteko desberdintasunak txikiagoak dira, gizonezkoek emakumezkoak %14,4 batean gaintituz.



4.8.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2011 urtea

Emakumezko turistak gizonezkoak baino %7 bat gehiago gastatzen dute bere bidaietan. Pertsonako batezbesteko gastu honek (610 euro) ez du emakumezkoen gastu total altuago bat eragiten, Euskal Herria bisitatzen duten atzerriko turisten artean emakumezkoen portzentai baxuagoa dagoelako.

Txangozaleen gastua pertsonako, gaua ez dutenez igarotzen, lehenago aipatutako eguneko gastuaren baliokidea da.



5. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK


Atzerriko turistek 567 milioi euro baino gehiagoko gastua egin zuten.

Lau urteko beherakada eta gero, 2010ean atzerriko turistek egindako gastua berreskuratzen hasi zen, eta 2011n da turisten gastu turistikoak igoera harrigarri bat eduki duen urtea. Igoera honek 2010 urtearekiko %16,5 bat suposatzen du, hazkunde xume bat ikusten hasi zen urtea.

Eguneko batezbesteko gastua %16,6 batean igo da, ordea, pertsonako batezbesteko gastua %6 batean.

5.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

2006. urtean atzerriko turistek egindako gastuaren kota maximoa lortzen da, geroago behera egiteko, 2009an bere kota minimora heldu arte. %21,2ko galera hau krisi mundialak eragindako atzerapen ekonomikoari zor zaio.




2010. urtean gorakada arin bat hasi zen, aurten sendotu delarik, ia 568 milioi euroak lortuz, 2006ko kota maximotik %3ra geratuz.

5.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa. 2011 urtea

Turistek gastu gehiena garraioan egiten dute, ia 200 milioikoa. Gehien bat aireko garraioa erabiltzeagatik da, ibilgailu pribatua erabiltzea baino garestiagoa baita.

Ostatuan egindako gastuak (132 milioi) ere modu garrantzitsuan laguntzen du gastu turistiko osoan.


Gutxiago dira taberna eta kafetegietan egiten diren gastuak (99 milioi euro), txango eta bestelakoetan (ia 78 milioi), elikagaietan (33 milioi) eta azken postuan pakete turistikoa erabiltzen duten turista gutxien ekarpena dago (26 milioi euro).



5.3.- Euskadira etortzen diren turistaren eguneko batez besteko gastua. Urteko bilakaera (2006 – 2011)


Hala ere, eguneko batezbesteko gastuak, gastu osoarena joerarekin konparatuz, joera oso ezberdina darama. Eguneko batezbesteko gastua 2007 arte igotzen joan da, gastu osoa jada jeisten hasia zegoelarik.

2008an eguneko gastuan 10 euroko beherakada zakar bat hasi zen (%8,7), hurrengo hiru urteetan nahiko egonkor mantendu da, aurten soberan berreskuratu den arte, tontor berri bat lortuz 114,52 euroekin, %16,6ko igoera bat irudikatzen duena lehengo urtearekin alderatuz, eta %5,8 bat bere egoera onenarekin alderatuz.




5.4.- Euskadira etortzen diren turistaren batez besteko gastua pertsonako. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Pertsonako gastua, eguneko gastuak bezala jokatzen du, 2007 kota maximoa markatuz eta gero %11ko beherakada bat jasanez, 2010 kota minimora iritsiz, aurten %6ko berreskuraketa bat edukitzeko.



5.5.- Euskadira etortzen diren turistaren gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Frantziako merkatuak sortu zuen atzerriko turismo-gasturik handiena, 139 milioi euroko ekarpenarekin, hots, urte osoaren %25 inguru. 2011. urtean zehar turista frantziarrek bere gastua %20,6 batean igo dute lehengo urtearekin konparatuz.




Frantziako merkatuaz gain, turismo-herrialde eta -eskualdeen artean gastuak hedapen handia izan zuen. Beste lau merkatuk %7,5 eta %11en arteko proportzioak aurkezten dituzte: merkatu latinoamerikarrak gastu turistikoaren %9a ekartzen du, alemanak %11, britaniarrak %7,5 eta estatubatuarrek %10.

Ekonomia turistikoari Frantziako herritarrek egiten dioten ekarpena, alemaniarrek egiten dutena bikoizten du, hauek ranking-ean bigarrenak izanik ia 63 milioi euroekin.

Merkatu estatubatuarrek, 2010ean egin zuen ekarpenari begira, %53 bat berreskuratu du, alemaniarrek %32,4 bat, latinoamerikarrak %23 bat, britaniarrak %14 bat, italiarrak %3 bat eta portugaldarra igoera minimoarekin mantentzen da %0,2 batekin.

5.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bizileku nagusien arabera. 2011 urtea



Gastuaren banaketa bizileku nagusien arabera aztertzen denean, argi dago hurrunago dauden herrialdeetako turistek (Estatu Batuak eta Latinoamerika) bere gastu gehiena garraioan inbertitzen dutela. Aitzitik, Frantsesek, bere gertutasuna dela eta errepide bidez sartzen diren turistek zenbaki altuagoa da, beraz garraioan gutxien gastatzen dutenak dira.

Ostatu gastua oso antzeko eran banatzen da herrialde desberdinen artean, bere kostuak ez baitu zerikusirik bizilekuarekin, denentzat berdina delarik. Frantsesek ostatuan 34 milioi gastatzen dituzte eta beste muturrean portugaldarrak daude 5 milioira iristen ez direlarik.


Pakete turistikoko gastuak herrialde batzuetan garrantzi minimoa dauka, eta beste batzuetan ia antzeman ezina da, adibidez, Frantzia eta Portugalen. Alemaniarrek dira pakete turistikoko gehien gastatzen dutenak (8 milioi euro) eta portugaldarrak gutxien gastatzen dutenak (312 mila euro).

5.7.- Euskadira etortzen diren turistaren eguneko batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Turismo-merkatuek aldaketa nabarmenak izan dituzte eguneko batez besteko gastu orokorrean, 114,52 eurokoak hain zuzen. Eguneko gastu gehien duen merkatua latinoamerikarra da, 145,68 euro eguneko. Merkatu honi estatubatuarrek jarraitzen dio 120,72 euroekin, ondoren ingelesak daude 116,35 euroekin, alemaniarrek 114,34 euroekin, italiarrak 105,49 euroekin, frantsesak 94,91rekin eta portugaldarrak eguneko 92,26 euroekin.


Turistek aurkezten dituzten joerak bere bizileku nagusiaren arabera oso desberdinak dira. Latinoamerikako herritarrek aurten %51 bat igo dira, Estatu Batuetakoak %20, Erresuma Batukoak %16, Frantsesak %12 eta Alemaniarrak %8.

Portugaleko herritarrek bere eguneko batezbesteko gastua jeitsi egin dute %5,8 batean eta italiarrek %13,5ean egin dute aurreko urtearekin konparatuz.




5.8.- Euskadira etortzen diren turistaren pertsonako batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Merkatuetan batez besteko gastuan egondako diferentziak turismo-egonaldien iraupenarengatik gertatu dira Euskadin. Errepidez errazago heltzen diren merkatuak dira pertsonako batez besteko gastu txikiena dutenak, hala nola Frantziak eta Portugalek.



Urrunen daudenak dira gastu handiagoa egiten dutenak, merkatu bakoitzaren bisiten berariazko iraupenaren arabera ere bai.


Estatubatuar merkatua, 2.137 milioi euroekin eta batez ere latinoamerikarra, 2.595 euroekin, pertsonako 585 euroko batezbesteko gastutik asko aldentzen dira.



Gainerako merkatu nagusien artean, gastua nabarmenki altuagoa da alemaniarren batezbestekoa baino (736 euro), italiarren (660 euro) eta ingelesen (601 euro) artean baino zerbait altuagoa, eta, ordea, portugaldarren artean baina pixka bat baxuagoa (582 euro) eta frantsesen merkatu nagusiarena baina askoz baxuagoa (264 euro).

Portugaldarren pertsonako gastua azken urtean modu harrigarrian igo da, %67, latinoamerikarrak jarraituz %36rekin, estatubatuarrek %17rekin, alemaniarrek %5 batekin eta frantsesak %1,4 batekin. Ingelesak funtsean, ez dute mugimendurik izan, %1 bat baino gutxiago jeitsi dira eta italiarrek pertsonako batezbesteko gastua %14 batean jeitsi dute.

5.9.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)




Aisialdiek eta negozioiek Euskadiko atzerriko turisten gastuaren %81,7 ekartzen dute.

Gutxi gora-behera 307 milioi eta erdi euro sortuta eta totalaren %54 batekin, aisia eta oporrak dira diru sarrera turistikoaren arrazoi nagusia. Aurten arrazoi hau %34 bat igo da, 2010 hasi zuen gorako joerari jarraituz. Laneko arrazoiengatik datozenen gastu turistikoak (157 milioi), interurteko aldaketa positibo bat erakusten dute, %7,7koa.

Arrazoi pertsonalengatik etortzen diren turisten gastua %20,3 batean jeitsi da aurreko urtearekin konparatuz, 53 milioi eurotara iritsiz, eta beste arrazoiengatik datozenenak, beren diru ekarpenak %2,3 batean jeitsi dituzte, 13 milioi eurotara iritsiz.

5.10.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bisitaren arrazoiaren arabera. 2011 urtea

Gastu turistikoa jokoera irregular bat azaltzen du Euskadi bistatzeko arrazoi nagusiaren arabera banaketa kontuan hartuta.




Negoziengatik etorritako turistak, lanagatik, txangoetan gastu gutxiago egiten dute beste arrazoiengatik etorritako turista guztiarekin alderatuz, eta gehiago garraioan. Pertsona batek lan bidai bat egiten duenean, normalean bidai lanen beharretara egokitu behar du, horregatik askotan ezinezkoa zaio garraioaren kostua gutxituko lituzketen beharpenak erabiltzea. Halabaina, beste arrazoiengatik etortzen diren turistak, gehiago aprobetxatu ditzazkete beharpen hauek, bere egonaldia egunez aldatuz.

Aisia eta oporregatik datozen turistek garraioan egiten duten gastua 93 milioi eurokoa da, ostatuan 74 milioi, jatetxe, taberna eta kafetegietan, 56 milioi, txango eta bestelakoetan 45 milioi, pakete turistikoa 21 milioi eta elikagaietan 17 milioi eta erdi euro.

Negozioetara datozen turisten gastua, bigarrena garrantzian, 157 milioi eurokoa da. Honela banatzen delarik, garraioan 68 milioi eta erdi, ostatuan 39 milioi, jatetxe, taberna eta kafetegietan 26 milioi eta erdi, txango eta bestelakoetan 14 milioi eta erdi, elikagaietan 6 milioi eta pakete turistikoa ia bi milioi euro.


5.11.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Lana eta negozioak %29,7ko igoera interurteko bat eduki dute, 158 eurorekin, eta aisia eta oporrak %2,2ko beherakada bat 114 eurorekin, hauek izanik bisita eguneko gastu maximoak. Gainerako arrazoiak hauek baino dexente beherago daude eta baita eguneko batezbesteko gastua baino beherago, 114,52 eurokoa delarik.



5.12.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako, bisitaren arrazoi nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Ikasleek pertsonako sortutako batez besteko gastu handia (2.611 euro) (batez ere egonaldiak askoz ere luzeagoak direlako) ezin da konparatu beste arrazoiengatik egindako gastuekin. Hala ere, ez du eragin handirik sortutako gastu osoan, eguneko gastu-maila txikia delako, eta, bereziki, horrekin lotutako bidaiari-bolumena ere eskasa delako.




Gastua ekartzen duten arrazoi nagusien artean, negozioiak dira, 931 euroekin, pertsonako gastu-mailarik handiena dutena, izan ere, aisialdirako etortzen diren bisiten gastua ia bikoizten dute (531 euro). Arrazoi pertsonalengatik pertsonako gastuak (319 euro) eta beste arrazoiengatik (306 euro), betezbesteko gastuaren (585,19 euro) azpitik daude baita ere.

Azken urte hontan eduki duten bilakaerari buruz, lanagatik eta arrazoi pertsonalengatik egindako bisiten gastuak %1,5 eta %14,1 igo dira hurrenez hurren, eta oporrak eta aisiagatik egindakoak %2,6 bat jeisten dira, ikasketengatik egindakoak %4 eta beste arrazoiengatik etortzen direnak %15,9 bat.

5.13.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)


Ostatu mota desberdinen artean, hotela da gastu turistikoaren zati gehiena lortzen duena. 325 milioi eta erdi euro dira, turismoak sortutako %57a suposatzen duena.

Hala ere, azken hiru ariketetan, ostatu mota honen ekarpena nahiko murriztuta geratu da, 2011rarte, non %22,5eko berreskuratze bat nabari den, ia 60 milioi euro suposatzen dituelarik.



Famili edo lagunaren etxebizitzetan ostatu hartzeak bigarren gastu turistiko handiena dauka lotuta (%17), aurten %4,3 batean txikitu dena. Alokairuko etxebizitzetan ostatu hartzeak, gastuaren %10,6 bat dakar lotuta, %15eko igoera interurteko batekin ere bai. Gainerako ostatu motak, antzeko gastu kontingenteekin lotzen da, ostatuan egindako gastuen egituraren %4,5 eta %5,5 artean.

5.14.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, erabilitako ostatuaren arabera. 2011 urtea




Ostatu motari dagokionez, alokairuzko etxebizitzak eta hotelak dira ostatu gastuan garrantzi gehiena daukatenak, eta aldiz, doako ostatuak bere minimoa lortzen du, gehienbat famili eta lagunaren etxebizitzek.

Hoteletan ostatu hartzen duten turistek garraioari 116 milioi eta erdi zuzentzen dizkiote, 92 milioi ostatuari, 55 milioi jatetxe, taberna eta kafetegiei, 32 milioi txango eta bestelakoei, 24 milioi pakete turistikoa eta 6 milioi euro elikagaiei.

Famili edo lagunaren doako etxebizitzetan geratzen diren turistak gehien gastatzen duten bigarrenak dira, beren gastua honela banatzen dutelarik: 38 milioi garraioan, 20 milioi txango eta bestelakoetan, eta baita jatetxe, taberna eta kafetegietan, 10 milioi elikagaietan, eta 9 milioi baina gutxiago ostatu eta pakete turistikoko gastuan.

Beste ostatu moten artean, aipatzekoak dira garraioan erabilitako 17 milioi euroak eta ostatuan erabilitako 16 milioiak, azken hauek alokairuzko etxebizitzak erabilitako turistenak.


5.15.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)



Eguneko batezbesteko gastua handiena pertsonako, hotelei bateratzen zaie, besteen oso gaintetik. 170 euro eguneko dira, berezko etxebizitzetan ostatu hartzen dutenen 83 euroen aurrean, edo alokairuzko etxebizitzetan edo kamping-ean ostatu hartutakoen 80 euroen aurrean. Beste hirugarren ostatu motetan egon direnak edo familia edo lagunuen etxebizitzetan, ez dira eguneko 79 euroetara iristen.

Batezbestekoaren gaintetik aurkitzen den gastu bakarra, hoteletan ostatu hartzen dutenen eguneko gastua da.


5.16.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)



Alokatutako etxebizitzak aukeratzen dituzte atzerritarrek gehienbat denboraldi luzeak egiteko, eta horren eraginez, beste edozeinek baino batez besteko gastu askoz ere handiagoa egiten dute pertsonako, norberaren etxean ostatu hartzen dituztenak barne. Azken horiek ere gastu txikiagoa egiten dute.

Hotelak (626,86 euro) eta famili eta lagunuen etxebizitzetara (489,78 euro) lotutako zenbakia, atzerriko turismoaren batezbestekotik gertu dago. Kanping-ak eta beste ostatu motek pertsonako gastu txikiena dakarte, 325 eurotik beherakoa.

5.17.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)



4 eta 7 ostatu gau pasatzen dituzten turisten gastuak 139 milioi euro suposatzen dituzte, gastu totalaren %24,5a eta %4,7ko beherakada bat markatzen dute.

15 ostatu gau baino gehiagoko egonaldiak, gastuaren %24,4 bat suposatzen dute, 139 milioi euroekin.

4 egun baino gutxiagoko egonaldiak 180 milioi eta erdiko ekarpena egiten dute, totalaren %32a.


5.18.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2011 urtea

15 gau baino gehiagoko egonaldietan, ez dira ia pakete turistikokoan gastuak egiten, aldiz, gastu hontan gehien inbertitzen dutenak 8 eta 15 ostatu gauen arteko bidaiariak dira (11 milioi euro).


Gastuaren banaketak, garraioaren kasuan, ostatu gauekin konparatuz joera proportzionaki alderantzizkoa dauka, 16 eta 30 ostatu gauen arteko egonaldietan izan ezik.

Ostatuan gastuak, ostatu gauen pisu proportzional bat izan beharko luke (gau ostatu gehiagora, ostatuan gastu gehiago), baina, 16tik 30erako ostatu gaueko egonaldiek berriz ere patroia puskatzen dute, banaketa 14 eta 30 puntu portzentaletan mantentzen delarik.

Jangaietako gastuak egonaldi luzeagoetan garrantzia handiagoa hartzen du. Turistek hilabete bat baino gehiagoko egonaldi bat egiten dutenean, ostatu mota ekonomikoagoak bilatzen dituzte (berezko etxebizitzak, edo familia eta lagunak) eta elikagaiak erosi egiten dituzte, hotelen ostatu erregimenak erabili beharrean (gosaria, mantenu erdia edo mantenu osoa).



5.19.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)



Ikus daitekeenez gero, eguneko batezbesteko gastua egonaldiaren luzeerarekiko proportzionala da.


Eguneko gastua, 7 ostatu gauetarainoko egonaldientzat, batezbestekoa baino altuagoa da eta 8 ostatu gutik gorakoentzat baxuagoa.

Urteetan zehar, ostatu gau bakarreko egonaldiak dira gora-behera gehien izan dituztenak, 200 euro eta 306 euro artean. Gainerako egonaldiak 25 erotik beherako gora-beherak izan dituzte, 30 gau baino gehiagokoak izan ezik, aurtan 35 euro igo baitira lehengo urtearekin konparatuz.

5.20.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Eta pertsonako gastua egonaldiaren luzeerarekiko alderantziz proportzionala da.


Pertsonako gastua hilabete bat baino gehiagoko egonaldiak egiten dituzten 5.123 euroetatik, gau bakar bat pasatzen dutenen 200 euroetara doaz.



Ostatu gauen kopuruaren arabera turistek egiten dituzten pertsonako gastuak, ondo bereizitako bi talde osatzen dituzte. Alde batetik ostatu gau askoko egonaldiak (7 gau baino gehiagokoak) gastu altu bat aurkezten dute, eta bestalde 1 eta 7 ostatu gauko egonaldiak batezbestekoaren azpitik gelditzen dira.

2 eta 3 gaukoak interurteko igoera txiki bat jasan dute, %4,6. 8 eta 15 gauen artekoak eta 30 gau baino gehiagokoak, %20ko eta %22ko igoera ertain bat eduki dute hurrenez hurren. Gainerako egonaldiak %1 baino gutxiago jeitsi dira denak.

5.21.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)




Bere bidaiaren pakete turistikoa erabiltzen ez duten bidaiarien gastua, turisten gastu osoaren %93ekoa da.

Gastuaren bi multzo hauek, aurten era aipagarri batean igo dira, %14 bat pakete turistikoa erabiltzen ez dutenak eta %60 bat erabiltzen dutenak, honek 2010ean hasitako igoerarako joera sendotuz, 2006tik beherakako joera batez markatua zegoena.


5.22.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bidaiaren antolaketaren arabera. 2011 urtea

Bidaiatzeko pakete turistikoa aukeratu duten turistek, gastu gehiena paketearen bertan egiten dute (26 milioi) eta elikagaietan egindako gastua nabarmenki jeisten da, milioi euroa baino gutxiagora. Garraioan egindako gastuak (3 milioitik gora) eta ostatuan egindakoak (milioi euro bat gutxi gora-behera) nabarmenki jeitsi dira ere.

Pakete turistikorik gabe bidaiatzen dutenen banaketa ia turisten banaketa globalarekin bat dator, hauek gastu osoaren %92,7a ekartzen baitute.




5.23.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)



Pakete turistikoa erabiltzen ez duten turistek, bere egonaldian, 112 euroko eguneko batezbesteko gastua lortzen dute, pakete turistikoa erabiltzen dutenen gastua baino askoz ere gutxiago, hau 173 eurokoa delarik.

Ez da ahaztu behar, pakete turistikoa erabiltzen ez duten turista gehienak, errepidez etortzen direnekin bat egiten dutela, erabiltzen dutenek baino garraio kostu baxuagoarekin. Normalean pakete turistikoa erabiltzen dutenak aire bidezko garraioa erabiltzen dute.

5.24.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)



Pakete turistikoa erabiltzen dutenen pertsonako gastua, aurreko urtearekin konparatuz %8,6 bat igo da, eta erabiltzen ez dutenena %4,7. Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen pertsonako gastuak, erabiltzen dutenenaren erdia suposatzen du.

Bestalde, erabiltzen dutenen gastuaren eboluzioak, 2006tik 2009ra gorakako joera bat aurkezten du, 2010ean jeisten joateko eta 2011 berriz ere igozko, bere puntu altuena lortu arte.


Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenak 2007tik 2010era bere pertsonako gastua jeitsi egin dute, eta aurtan da, 2011ean gastua hau berreskuratzen hasten denean.

6. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK

6.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Euskal Herrian atzerriko txangozaletasunak sortutako gastua 819 milioi eurokoa da. Zifra honek %31,5 bateko igoera suposatzen du aurreko ariketari begira, eta berriz era beherako joera hausten du 2010eko gastuaren bolumen totalen.

Txangozaleen gaur egungo gastua 2006ko kota historiko maximoa baino %13,3 puntu gehiagotan aurkitzen da, 96 milioi eurotan gaindituz.



6.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoaren banaketa. 2011 urtea

Txangozaleen gastu turistikoaren banaketa turistek gastua egiten zuten 6 kontzeptuetatik hirutan bakarrik banatzen da.

Gastuaren zati garrantzitsuenak txangoak eta beste gastu batzuk egiteko erabiltzen dute, ia 453 milioirekin. Bigarren postuan, garraioan egindako gastuak 272 milioi eurotan gainditzen du eta azken postuan, eta garrantzi gutxiagorekin, jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua dago 94 milioi eurotan gainditzen duelarik.

Txangolariak / Excursionistas




- Pakete turistikoko gastua / Gasto en paquete turístico
- Ostatuko gastua / Gasto en alojamiento
- Garraioa / Gasto en transporte
- Jatetxeetan, tabernetan eta kafetegietan gastua / Gasto en restaurantes, bares y cafeterías
- Jangaietako gastua / Gasto en comestibles
- Ibilaldietako gastua eta beste batzuk / Gasto en excursiones y otros

6.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Arrazoi pertsonalak, 290 milioi eurorekin, txangozaleen gastu gehien ekartzen duten arrazoiak dira. Sortutako gastu totalaren %35 suposatzen dute, azken bi urte hauetan asko jeitsi den pisua, beste gastu batzuen mesederako,

erosketen arrazoia beste arrazoiaren epigrafean taldekatu zenetik, lehen arrazoi hau arrazoi pertsonalen barruan taldekatuta zegoelarik.




Aisiak, txangozaleen gastuan %23 bateko ekarpena egiten du, negozioiek %7 bat eta beste arrazoiek %34 bat, gastuen egitura osatuz.

6.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. 2011 urtea

Txangozaleek egindako gastua bisitaren arrazoia nagusiaren arabera, nahiko aldatzen da arrazoi batetik bestera.


Txangoetan eta zehaztu gabeko beste gastuetan egindako gastua adierazgarria da, txangozale guztiak egiten duten gastutik, 819 milioi, beste arrazoientatik bidaia egiten duten txangozelek egindako gastua 172 milioikoa da.

Aipagarria da ere arrazoi pertsonalengatik txangozeleek egindako gastua, 167 milioi eurokoa delarik.




6.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)

Arrazoiarengatik banatutako txango mota desberdinei buruz, beste arrazoiengatik sortutako pertsonako gastuak dira aipagarriak, pertsonako 125 euroekin. Aisiagatik datozen txangozaleetan erregistratutako zifraren bikoitza (64,83 euro).



6.6.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)


Frantses jatorriko txangozaleen gastuaren %93 bat suposatzen du, horregatik joera ebolutiboak erabat zehazten ditu. Ekarpenean hurrengo merkatua Erresuma Batukoa da, 5 milioi eta erdi euroekin, lehengo urtekoaren bikoitza. Txangozale frantsesen perfilak mugaren gertuera dela eta, eskualdeko erlazio bat sorrarazten du, internazional baten aurrean.




6.7.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. 2011 urtea

Txangozaleen multzoak egindako gastuaren %93a Frantziarrek egiten dutenez, txangozale frantziar hauen gastuaren banaketa aztertzen da. Gastu honek txangozaleen gastu globala bezala jokatzen du.

Gastuaren %55a txangoei eta beste zehaztu gabeko gastuei dagokie (449 milioi euro). %33a garraioan egindako gastua da (224 milioi) eta %12a jatetxe, taberna eta kafetegietan egindakoa (90 milioi).



6.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa pertsonako, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2011)




Txangozale gastua pertsonako 87,42 eurokoa da, aurreko ekitaldian lortutakoa baino %15,4 gutxiago.

Distanzia luzeko txangozaleek mugako eskualdeetatik etorritakoek baino gastu handiagoa egin zuten pertsonako. Gastu hau Euskadin egindako txangoan egindako gastuaarekin bat dator. Osatzen duten multzo nagusiak garraioa, mantenua eta aisian beste gastu batzuk dira. Zenbaki baxuak dira ez dutelako ostatu gasturik eta garraio gastuak normalean berezko ibilgailuarenak direlako.

Frantziako herritarrek batezbesteko gastutik beherako gastua daukate, eta 2010eko baino %10,5 bat altuagoa, ordea, Erresuma Batuko herritarren pertsonako gastua bikoiztu egiten da lehenengo urtearekin konparatuz.

BASQUETOUR

TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

Société Public du
Public corporation of

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO